# OSABA OTSO

Egokitzapena: XOSÉ BALLESTEROS

Irudiak: ROGER OLMOS

Itzulpena: KOLDO IZAGIRRE

Azal gogorrean egina. 22 x 22 cm. 40 or. 13 €.

IRAKURKETA GOMENDATUA - FNLIJ SARIA, BRASIL, 2009
THE WHITE RAVENS, 2001

**Osaba Otso** (euskara)
ISBN 978-84-9172-089-8. Herri ipuinak.

**Tío Lobo** (gaztelania)
ISBN 978-84-8464-911-3. Cuentos tradicionales.

**Tío Lobo** (galegoa)
ISBN 978-84-8464-910-6. Os contos do trasno.

**L'oncle Llop** (katalana)
ISBN 978-84-8464-912-0. Contes tradicionals.

**Tio Lobo** (portugesa)
ISBN 978-989-749-036-1. Contos tradicionais.

–Ez negarrik egin, Karmele. Torrija batzuk egingo ditut,
ikusiko duzu zer goxoak –esan zion amak–.
Baina, izan ere, ez daukat non frijitu.
Zoaz Osaba Otsorengana eta esaiozu uzteko zartagin bat.
Eta gure neska tripazakua Osaba Otsorengana joan,
eta atean jo zuen...

Egokitzapen honek Italiako Frioleko ipuin tradizional batean du oinarria. Testu politikoki ez zuzena da, ume irakurleak «ohartarazteko ipuinen» generoan sartzen dituena. Kontakizunak erritmo bizi du, eta tonu jostagarria, eta istorioa tentsioa hartzen doa bukaera ustekabekoa izan arte. Oso ipuin gomendagarria da ahoz gora kontatzeko.

"Osaba Otso" Roger Olmosen lehenbiziko liburu irudiduna izan zen, orain dela 14 urte egina. Edizio berri honetan, Karmeleren gorabeherak azalduko dira berriz, proposamen bixi batekin, estilo aratz eta argi batekin: paper gaineko olioak, xehetasun askoko eszenografiak, ikus-jolasak (basoak zartaginaren forma du, neskaren ileak bat egiten du paisaiarekin). Halako keinu askori erreparatuko die irakurleak.







- **Gaia:** gezurra, zigorra.
- **Adin egokia:** 4 urtetik aurrera..
- **Nabarmentzekoak:** herri ipuina, ohartarazpen ipuinetarako sarbidea; suspensea; ikus-jolasak; honakoak ere ditu eginak: "Untxitxo txuria", "Hiru hartzak", "Hiru txerrikumeak".
- **Liburuaren lagina:** https://issuu.com/kalandraka.com/docs/osaba-otso-eusk

## Xosé Ballesteros

(Vigo, 1956)

Editorea, KALANDRAKAren fundatzaileetako bat, idazlea eta itzultzailea. Bereak ditu "Talego" eleberria (Xerais, Premio García Barros), eta Haur eta Gazte Literaturaren alorrean "Os Gordibolas" saila (Xerais), "Imagina animales" liburua eta honako herri ipuin hauen egokitzapenak: "Untxintxo txuria", "Hiru hartzak", "Hiru txerrikumeak". "Las pescadoras" liburuarekin (KALANDRAKA) Madrilgo Haur eta Gazte Liburu Azokako Saria jaso zuen (33. edizioa). Horrez gain, "Fernando Pessoa: selección poética" antologia ere itzuli du gaztelaniara (FAKTORÍA K).

## Roger Olmos

(Bartzelona, 1975)

Irudigintzaren espezialitatea egin zuen Llotja-Avinyóko Arte eta Ofizio Eskolan. Testuliburu eta aldizkari espezializatuetarako lan zientifikoekin hasi zen, baina, 1999. Urteaz geroztik, lehenbiziko aldiz Boloniako Haur eta Gazte Liburuen Azokan hautatua izan ondoren, irudigintzan aritu da. 50 liburutik gora argitaratu ditu hainbat herrialdetako editorialentzat. Haren lana The White Ravens izeneko zerrendan sartu da, Llibreter eta Lazarillo sariak jaso ditu, eta finalista izan da Junceda sariketan. Bestalde, Ilustrartem eta Bratislavako Bienaldean hartu du parte.
https://rogerolmos.carbonmade.com

www.kalandraka.com
comunicacion@kalandraka.com

www.Pamiela etxea.com
soltxate@pamiela.com